

GORPUTZ PERFORMATIBOAK ERAIKITZEN: GORPUTZA BERRESKURATZEN

Performatibitate hitzaren esanahi edo sinonimoa, egin daitekena “egingarria dena” da; alegia, egin daitekeen guztia benetazkoa bilakatzen denean.

Gorputz performatiboa ematen da sortutako akzioa errealitate eraldatzen denean. Era berean, akzio preformatiboa esperientziaren bitartez lortutako jakindurian oinarritzen denez, ikuspegi irekia, pentsamendua, distentzioa, sentimendua eta kreatibitatearekin arremanetan jarriko gara.

Ikastaro honetan gorputza izango da protagonista. Halaber, ikuspuntu feminista ardatz hartuta ausnartuko dugu zenbateraino den lagungarri edo eta baldintzatzaile sozialki eta kulturalki sexu-generoaren inguruan eraiki ditugun forma eta moduak. Premisa, esaldi honen inguruan kokatuko dugu: “Ez gara emakume jaiotzen, egin egiten gara”.

Bertan, transgresioa landu eta forma estereotipoen aginduak zalantzan jarriko ditugu. Beti ere, jarrera ludikoei, estetikoari eta poetikoari atea zabalduz.

Ikastaroaren helburuak:

Gorputzen bizipen eta erabilerak beste modu batean aztertzeko esperientzia izan.

Pentsamendu eta akzioari arreta eman.

Gure errealitatea noraino transformatu dezakegun frogatu.

Gorputzei ahalduntze baimena eman.

Gogoeta suspertu, eztabaidarako bildurrak eta aurreiritziak uxatu, lekua, modua eta denbora hartzen ditugularik.

Metodologia:

Gure eguneroko akzio eta jarrerak ikusmiran jarriko ditugu hizkuntza kreatiboan adieraziaz; Gorputza-emozio-burua hustutzen ditugunean, kreatibitatea eragile askatzaile moduan agertzen da eta edozein gauza aldatzeko eta eraldatzeko bidea ematen da.

Ikastaroaren urratsak:

1. **Urratsa:** gorputzarekin kontaktuan jarriko gara: gorputza suspertu eta gorputz kontzientzia lana egin. Eguneroko ekintza eta akzioei erreparatuz azterketa eta bilakaera izango ditugu ardatz. Gorputzaren perzeptzio ezberdinekin lan eginez eta pentsamenduei askatasuna emanez. Sortutakoekin gogoetara gonbidatu.
2. **Urratsa:** bapatekotasuna eta baimena izango ditugu lema: eguneroko objektu ezagunei beste erabilerako aukerak emango dizkiogu; ikusmina, emozioa, arrotasuna, sormena, eta imajinazioa libre utzirik. Sortutakoekin gogoetara gonbidatu.
3. **Urratsa:** bakarkako sormena. Mundu intimoaren inguruan ariko gara. Norberaren desirak, beharrak, esperantzak, bildurrak gorputzuz. Ondoren,

mugimenduak bitarteko norbere dantza sortuko du. Koreografia pertsonala, askatzailea eta onuraduna. Sortutakoarekin gogoetara gonbidatu.

- 4. Urratsa:** taldeko sormena. Aurreko saioetan jasotako gogoeten abiapuntua izango dugu elkarrekin performance bat sortzeko. Honetarako bakoitza nahi duen materiala ekarriko du. Sortutakoarekin gogoetara gonbidatu.

Saio guztietan gorputz beroketa sakona egingo dugu. Edozein pertsonak hartu dezake parte ikastaro honetan. Jantzi erosoak eraman beharko dira (bertan aldatzeko aukera izanik). Iraupena: 8 orduko ikastaroa proposatzen da, adibidez: 4 larunbatetan 2 orduko saioak egiñez.